

Europako Ondarearen Jardunaldiak gero eta herri gehiagotan

13. orrialdea

Gorbeia Suzien Zeanurin

Gorbeia Suzien hilaren 13an izango da. Lasterketea Euskal Koparen barruan dago eta izen handiko korrikalariak egongo dira bertan. Baina martxea be egongo da eta edonork parte hartzeako ibilbide bi prestatu dabez antolatzaileak.

Alex Txikonen proiektino batek hilaren 12an eta "Emakumea eta kirola" mahainguruak 14an osotuko dabe astegoienerako egitaraua. **11. orrialdea**



Ekintzak Areatza, Zeanuri eta Zeberion gure urteurrenean

12. orrialdea

begitu ^{TOKIKOM} 10 urte

arratia ubide zeberio

171

2012ko urri bigarrenaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Grebak % 80ko jarraipena gurean



Greba egun baten Arratian egindako manifestaziorik jentetsuenetakoa izan zan Igorren egin zana.

Kalera urten ziran arratiarrak urri lehenengoaren 26an murrizketen kontra protesta egiteko.

Grebak izan eban erantzuna ez zan izan martiaren 29koa adinakoa, baina industrian eta merkataritzan % 80ko segmentua izan eban, ELA eta LAB

sindikatuaren arabera. Manifestazinoa, barriz, ordukoa baino jentetsuagoa izan zan.

Arratiako Udalen Mankomunitatearen egoitzan istilu ari-

nak egon ziran goizean. Egund horretako osoko bilkurea ez atzeratzea ebatzi ebenean mankomunitatean, kalte batzuk eragin zituen protestan ebizanak. **5. orrialdea**

ZEBERIO

Milla bat karran euskerearen alde

"Euskaraz bizi nahi dut" ekimena eta auto bako eguna bat egin, eta jai eguna ospatu eben Zeberion urri lehenengoaren 22an. Hori dala eta, "Euskerearen aldeko milla bat karran" lasterketea antolatu eben. Partaideak oinez, bizikletan, patinetan... eta motor bako edozein ibilgailutan egin eben distantzia hori. **6. orrialdea**



ARRATIA

Cristina Ruiz Bediakoak irabazi dau 2012ko BEGITUREN argazki lehiaketea

Kuban ateratako argazki bat izan da irabazlea. Bigarren saria June Ituriaga Areatzakoak eroan dau Mozambiken ateratako argazki exotikoaren sari moduan. Parte hartu daben guztiak ikusi gura izatekotan www.begitu.org webgunean dagoz. **8. eta 9. orrialdeak**



ARANTZAZU / DIMA

Sanfreskuak eta sanfaustoak

Uda amaitu da baina jaiak ez oraindino. Hamabostaldi honetan Dimako Indusi auzunean sanfreskuak ospatuko dira eta Arantzazun sanfaustoak. Asisko San Frantzisko eguna ospatuteko hiru eguneko egitaraua prestatu dabe Indusin. San Fausto eguna, barriz, frontoian herri afari batez ospatuko dabe Arantzazukoak. **5. orrialdea**

AMORE
EZKONTZA AZOKA II FERIA DE BODAS
URRIAK
19, 20, 21
AMOREBIETA-ETXANO
Zelaieta Zentroa

DENDARIK
ARRATIA
arratia

KANTU HERRIKOIAK

LARROSA BENTANAKOA

(Jotarako koplak)

Larrosa bentanako
iminten zaitut kontuen,
baltseorik ez eiteko
neure fandro soinuen,
neure fandro soinuen
ai, iminten zaitut kontuen.

Hilten ez baiataz
aurten kantariak,
saldu ta erosiko [do]daz
zapata zuriek.
Zapata zuriekaz
garriko gorrie,
San Juston agiriko da
nor dan jantzari.

Iturria: Bitoria Artetxe eta Paule Mendibil.

1978an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki Larrakoetxea eta Ruper Lekuek jaso.

Ai, Altamiñako landia,
ai, Altamiñako landia
ai, negu ta uda berdian,
ai, Altamiñako mutilok
ai labana daude berbia,
ai labana daude berbia,
ai Altamiñako landia.

Hilten ez baiataz...

Ai, eleixe osteko haltzetan,
ai, eleixe osteko haltzetan
ai, txoriak dauz arrautzetan,
ai, bana bineko hasteko
ai, kaiolia prepartetan,
ai, kaiolia prepartetan,
ai, eleixe osteko haltzetan.

Hilten ez baiataz...

Ai, hauxe da despedidia,
ai, hauxe da despedidia
ai, despedide honen tristia,
ai, motiborik emon barik
ai, hasarratute jentia,
ai, hasarratute jentia,
ai, hauxe da despedidia.

Larrosa bentanako



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 1etik 7ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 8tik 14ra

N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano

Urri bigarrenaren 15etik 21era

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean
Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean
Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduo.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.
Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta
Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bilbo Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
www.begitu.org
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Cristina Ruiz eta Irati Urien.
Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.
Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Maria Rodríguez eta Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjaregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.600 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Greba eguna mankomunidadean

Urri lehenaren 26rako greba deialdia egin eben sindikatu eta gizarte eragileak "Euskal Herrian murrizketarik ez! Lan eta gizarte-eskubideen alde lemapean". Egun horretarako plenoa egoan deituta Arratiako Udalen Mankomunitatean eta herri bi handienetako alkateak Josune Gorospe mankomunidadeko lehendakariari, plenoa bertan behera itxi eta grebagaz bat egiteko eskatu eutsien. Egoera zailetan dagozan herriarrazak eta udal eta mankomunidadeko kudeaketea gero eta zailagoa egiten daben neurrien aurrean, protesta egiteko. Halanda guztiz, plenoa egin zan, aspaldian eginda egoan deialdia zala arrazoituz.

Sektore publikoan eta ongizate estadian murrizketak egiten dabiz bitartean, diru publikoa espekulatzaile pribaduentzat emoten dabiz. Kapitalista handiak oindino gehiago aberastu eta herritarrak miseriara kondenetan dabiz bitartean. Lapurreta erraldoia.

Krisia hasi zanetik, zulo baltzean hondoratzen jarraitzen dogu; langabezia gora doa (Arratiako kasuan 30 kaleratze Negarran aurtengo udabarrian, beste enpresa batzuk be zarratu egin dabe aurreko urteetan -Plásticos Ormazabal, Auxiliar Siderúrgica, Laron-), ekonomia geldituta, sektore publikoa deuseztatzen dabiz (botiken berrordainke-

tea, murrizketak osasungintza eta hezkuntzan), langabetuentzako laguntzak behera doaz, menpekotasun egoeran dagozantzen presztazinoak be gero eta mugatuagoak, pensinoak arriskuan... egunero gure udaletan bizi doguzan egoerak dira honeek.

Herriarrazen ongizatea gero eta egoera lamiagoan ipinten dabiz neurrien aurrean protesta egiteko, Arratiako Bilduko ordezkariak grebagaz bat egin, eta ez eben urri lehenengoaren 26ko plenoan parte hartu.

Pleno hasieran halaxe adierazo eutsien Bilduko ordezkariak han alkartutako beste zinegotziaz, adierazpen bat irakurri eta alde egin eben. Era berean, herritarrak be bertaratu ziran. Orain, Josune Gorospe lehendakariak, Bilduko alkate eta zinegotziaz bertan gertatutako ekintzen "denuntzia publikoa" eskatzen deutse.

Gure aldetik, ez gara ezelango kondena edo salaketa dinamikan sartuko, guztiz antzuek diralako. Egun gure kontra dagozan kriminalizaziorako jarrean aurretik, argi itxi genduan gure konpromisoa eta jarrean azken udal hauteskundetara aurkeztu aurretik, kode etikoa sinatzeagaz batera.

Amaituteko, egoera honen aurrean mingarria egiten jaku batzuen jarrean, "denuntzia publikoak" eskatuz, beste egoera batzuen aurrean mutu dagozanean.

ARRATIAKO BILDU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ilintia



Surteko egur-zati erdi errea, alde bata gori-gori dagoanean eta bestea amatauta edo suak hartu barik, horri ilintia esaten jako. (ilintie, illintie, illintie edo illétie, agoskatuta). Etxe-barruan zein basoan berotasuna mantentzeko, ilintia aurreratu egin behar dira sutondora. Txondorginen dabilen ikazginak kargua euki behar dau ilintiak guztiz ondo erre arte, osterantzean ikatza ez da izango behar dan modukoa. Labasua egiten danean be, ilintiak alboratu egin behar dira laban, oia erreta urten ez daiten laba-barrutik.

ERETXIA

Nahitaezko niniak



CLARA LUJA AZPIRI
Kazetaria

Egunero, telebista piztean edo egunkaria hartzean barri txarrak heltzean jakuz.

Egoera ekonomiko kaskarra dala eta, dana dago desagertzen eta okertzen: enplegua, osasun zerbitzuak, edozein motatako dirulaguntzak... Giza talde guztiak jasaten dabiz okertze horreek, horreen artean nire moduko gazteak. Egunero telebista piztu edo egunkaria hartu eta etorkizun baltza ikusten dogu gazteok.

Gero eta ni-ni (gaztekeraz, niniak ikasten ez dabiz ezta lanik egiten dabiz gazteak; euskeraz, leku batzuetan nini umea da) gehiago dagozala esaten dabiz azken datuak eta ez da harritzekoa. Baina gauzak ez dira lehen bezain errazak eta ni-ni alferraren estereotipoak ez dau errealdadeagaz bat egiten. Gaur egun, krisi egoera honetan, ze aukera daukie gazteak?

Orain dala urte batzuk, hogeitertetik gorako gazteak ikasketak amaitu, lan heziketan zein unibersidadean, eta hurrengo pausu naturala lan munduan sartzea zan. Ikasketak amaitu eta denpora gitxian topetan zan lana, lanbidearen arabera batzuetan ikasketak amaitu baino lehen be agertzen ziran lan eskeintzak. Baina gaur egun holako gauzak urrutiko ametsak baino ez dira. Gaur egun ez dira lanpostu barriak sortzean, galdu egiten dira. Esperientzia eta preparazio handiko personak euren lanpostuak galtzean dabizenez, zelako esperantza geratu daiteke bere lehen lana izan ez dauan persona batentzat?

Arlo desbardinetan egoerak desbardinak dira, jakina. Eri-zaintza moduko osasun arloko lanbideetan egoerea okertu egin da (diru gitxiago, prestazino gitxiago...) baina oraindino lana badago. Kazetaritzaren arloan,

barriz, langileak kaleratu eta he-dabideak zarratuten dabiz. Barri-rik zabaldu barik. Profesional kualifikauak kaleratzen dira eta ez daukie lekuri lanera bersartzeko. Lana eskasian dago eta oso jente ikasia be kalean gertatzen da. Eta urtero ehundaka kazetari barri lizentzietan dira

unibersidadeetan.

Niniak, akaso, ez dabe lanik egingo, baina horreetako askok lan egin gura dabe. Edonon bilatzen dabe lana, saiatzen dira, baina ezer gitxi lortzean dabe. Egoerak berak ebazten dau. Eta merkaduak. Gazteak ezin dabe hori kontrolau. Holan egunak pasetan dira eta gazteak danetarik bilatzen dabe: kursoak, beka, praktikak... baina holako gauzak be gero eta gitxiago dira.

Beste aukera bat ikastea da. Gazte askok, unibersidadea amaitzean, master bat egitea edo beste karrera bat hastea erabakiten dabe, amaitzean gauzak errezagoak izango diralakoan edo CVa hobetuteko. Baina aukera hori ere zaildu egin da aurren: matrikulu prezioak igo egin dira leku guztietan eta mozketak dirala eta, hezkuntzari dirulaguntzak murriztu deutesiez. Gero eta garestiagoa da ikastea eta familiak gero eta diru gitxiago daukie. Batzuetan ikastea ez da aukera bat.

Ikasketak ez daukiezan gazteentzat be egoerea sano okerra da. Lana galtzean lehenak izan ziran eta lana berreskuratzen azkenak izango dira. Zergaitik hartuko dau Pizza denda bateko jaubeak ikasketak bako persona bat, ostalaritza eskolako graduak be curriculum bidaltzen deutesie-nean? Errekurso gitxiko personak dira askotan, momentu txarrak bizitzen dagozanak.

Egoera txarra da gazteentzat, eta egunean-egunean txarragoa. Telebista piztu edo egunkaria hartu eta etorkizuna baltzagoa dala egunero dirudi. Baina, esae-ra ingelesak dinoan bezala "It's always darkest before dawn". Momenturik ilunena egunsentia baino lehen da. Espero daigun egunsenti hori ez egotea oso urrun.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea Iuzua, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrez beharrez,
euskeraz eginez

Enbarrak
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



RUTH LINAZA

Esku bete euli

Futbolak, saskibaloiak, peloteak edo txirrindularitza kirol minutu gehienak betetan dauzan egunotan, gure komunikabideetan, andren sokatirea existidu be ez da egiten.

Badaiotz sokatira taldeko tiralaria naz. Andra kirolaria beraz. Afizinozko kirolaria baina era berean elitean dagoan talde batekoa. Badaiotz taldea Gasteizko taldea da eta bertan halabeharrez hasi nintzan arren, gogor eta gogoz jarraitzen dot urteak pasau ahala.

Baina sano gustura ibilte horrek ez dau kentzean Gasteizerairentrenetan joan behar izateak sakrifizio ikaragarriak eskatzen ez dauzenik.

Astean kilometro pila, beharraz buztartu beharreko entrenamentuak... Taldekide gehienak Euskal Herriko puntu

desbardinetatik joaten gara eta asko, ama be badira. Hor bai hor, ordutegi, lan eta familien antolamentu ezinezkoak sakrifizio hori hirukoiztu egiten dabe. Familiak, bikoteak edota lagunak esku bat ez, besarkada galantak bota behar izaten dabez, tiralari diran amak, laguntzeko orduan.

Eta dana, musutruk. Tiralarion ekinen modukoa da sakrifizio hori guztiori, debaldekoa. Tiralariontzat txarragoa, dirua galtzean dogulako pitean-pitean.

Noizean behin Badaiotz taldeari, poztasunak be etorten jakoz sakrifizio horreen ondorioz.

Munduko txapelketak irabazi izan doguz (egungo txapeldunak gara), Euskal Herriko txapelketak, eta oraingo honetan, Taiwanera biajea joateko aukerea be heldu jaku. Taiwanera sokatiran gaineko film bat grabetan joan gozalako!

Hor ikusten da herrialde desbardinetan kirol bateri deusien errespetua zein desbardina dan. Taiwanen, tiralariak profesionalak dira. Hemen, dirulaguntza txikerrak be ez doguz hartzean aspaldian. Taiwanen, instituzino eta komunikabideen aldetik errespetu, babes eta publikidadea jasoten dabe. Euskal Herrian... zer garan be ez sarritan!

Hor ikusten da zoritarrez, andren sokatirea eta esku bete euli... antzekoak dirala!

ZERTZEAN



ILLART GUMUZIO

1 Kontatuko deusuet gaurko egoera azken aldian doa txarretik txarrera baina apurka-apurka goazen aurrera danon artean ziur dogula aukera.

2 Hile amaierara justu xamar edo guztiz itota IVA aldatu ezkerotorkizuna baltza doguna espero lehen kliente ginen ta orain BEZero.

3 Jendea dogu ezin pagauz hipoteka errudun BBVA, La Caixa, BBK... lasai erreskatea kobrau dabe eta artean zubipeak daoz jentez beteta.

4 Langabetuz beteta dogu enparantza Esperanza Aguirrek lana sobra antza holan danontzat hobe ez egin zalantza dimititu ostean dator esperantza.

5 Gobernuak arma lez darabil kirola zergak ahaztuteko: Athletic-en gola agintariet holan eginez kontrola lehen zezenak ziren ta orain futbola.

6 Txarto norbera, txarto senide zein lagun aholku bat danontzat: ekinean jardun. Hobera joango gara gu egunez egun ta etorkizun baltza argitu dezagun!

BEGI TXINDORRA

Errekea garbituten, urri lehenengoaren 29an ateratako argazki hau bialdu deusku Igorreko Udalak. Argazkian ikusten dan moduan bizikleta bat atera eben errekea garbituten ibilitako boluntarioak. Bizikleta oso-oso. Akaso nahita botata, akaso jausi egin zana. Dana dala, errekea ez zan bere lekua eta lupetzak estali arren, jaubeak ezagutuko dau bere bizikletea, seguru asko. Ez dakigu zer pentsauko dauan, errekeak berea itzuli deusala ikustean.

"Ezin da sinistu zenbat txarrikeria atera genduan errekatik. Jenteak zaborra erre kara botaten jarraituten dau. Gezurra dirudi" dinoe parte hartu ebenak, etsita.

Arratia ibaia Arratia eskualde osoaren ardatza dogu. Arratia da errekea eta izenaz gainera, odolak gorputzari moduan, bizitza emoten deus bailara osoari. Zaborra bertara botatea ez da bakarrik gizalege faltea, biziari eraso egitea be bada.

Bizikletak lehorrean ibilteko dira.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosti.cl.com


Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aiderkoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igone-Bizkaia
T. 94 631 30 39
Nafarroa Zerkatu, 110
R.P.S. 25/06


Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARRATIA

Grebak erantzun handia izan eban baina ez osoa

Industria, merkataritza eta hezkuntza arloetan izan eban grebak erantzunik zabalena gurean, baina ha ta guztiz be, ez eban izan martiaren 29an adinako eragina.



500 lagun inguru batu ziran Igorren greba eguneko manifestazioan.

Erredakzioa

Izan be, orduan ia erabatekoa izan zan. Urri lehenengoaren 26an, barriaz, industrian eta merkataritzan % 80 inguruko segimentua izan eban gurean LAB sindikatuaren estimazioen arabera. "Ia guztiz zarratuta egon ziran Igorre eta Dimako industrialguneak. Arteakoan enpresa gitxiago egon ziran zarratuta, eta Batz-en be behargin batzuk behar egin eban" azaldu deutso BEGITURI Dabid Lizarralde LABekoak.

Denda eta tabernai jagokienean be, antzeko segimentua estimetan dabe ELA eta LAB sindikatuak, % 80koa, hain zuzen be. Holan, Igorren, "salbuespen txikerren bat kenduta, jarraipena ia erabatekoa izan zan", Zeanurin be zarratuta egon ziran komertzioak eta Areatzan % 75 inguruk erantzun eutsien greba deialdiari, BEGITUREN iturrien arabera.

Ikastetxe gehienetan gitxieneko zerbitzuak baino ez ziran bete. Holan izan zan Igorre, Areatza eta Dimako eskoletan. Artean 4 irakaslek egin eban greba eta Lemoan da-

nak lau izan ezik. Institutua "zabalik egon zan eta irakasle batzuk eta sei ikasle" egon ziran.

Erakundeai jagokienean, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide eta Zeanuriko udaletxeak zarratuta egon ziran. Artean eta Zeberion udal beharginen erdia inguruk egin eban greba, beste erdiak ez. Arratiako Udal Mankomunitatean, behargin gehienak egin eban greba "lau edo bost kenduta, danak" mankomunitateak BEGITURI azaldukoaren arabera.

Ha ta guzti be, aurreikusita egoan plenoa ez zan atzeratu eta istiluak egon ziran.

Istiluak mankomunitatearen egoitzan

Piketeak goizean goiz hasi ziran Arratian baina "ia enpresa guztiak egozan zarratuta. Batzen, behar eban egozan apurraz artezean berba egiteko aukerea" izan eban piketeak Igorre sarean webgunean dinoenaren arabera.

Arrastian, baina, istiluak gertatu ziran Arratiako Udalen Mankomunitatean.

Izan be, su-itzalgailu bat hustu eta kalteak eragin zituela salatu dabe mankomunitateak. Mankomunitateak Osoko Bilkurea egin eban, aurreikusita eukan moduan, "Igorre eta Lemoako alkateak atzeratzeko eskaria luzatu eban arren. Biak gerturatu ziran plenora, hainbat herritarregaz batera eta mankomunitateko lehendakariaren jarrera salatu ostean, alde egin eban" azaldu dabe Igorre sarean webgunean. Baina gauzak ez ziran hor geratu eta istiluak egon ziran. Arratiako Udalen Mankomunitateak, iskanbilak gertatu zirala salatzen dau, eta txarresten dauz prensa ohar baten. "Ezin da inondik justifikau pasau zana: besteak beste, oihuka eta zarataka ibiltea eta mankomunitateko egoitzan dagoan hautsezko su-itzalgailu bat hustea". Holan, "kalteak eragin zituen mankomunitateko instalazioetan".

Arrastian manifestazioa egin zan Igorren eta jentetsua izan zan, martiaren 29koa baino jentetsuagoa, BEGITUREN iturrien arabera.

ARANTZAZU / DIMA

Sanfreskuak eta sanfaustoak udagoieneko jaiak

Erredakzioa

Uda amaitu da baina jaiak ez oraindino. Hamabostaldi honetan Dimako Indusi auzunean, sanfreskuak; hau da Asisko Frantziskoren eguna eta Arantzazun San Fausto jaiak ospatuko dabez. Arantzazu herrian, sanpedroak ospatuten dira uda hasieran, baina uda amaitutakoan be sanfaustoak ospatuten dabez. Arantzazukoak sano gustukoa dabe hau ospatuteko egiten daben herri afaria.

San Fresku jaiak. Indusi (Dima) Urri bigarrenak 4, eguena, Asisko San Franzisko eguna

12:00etan mezea.
13:00etan, barauskarria.

Urri bigarrenak 5, barikua

17:00etan, Briska txapelketea.
19:30ean, txitxiburduntzia.
21:00etan, erromeria Koldo eta

Isaak taldeagaz.
24:00etan, txokolatea.

Urri bigarrenak 6, zapatua

12:00etan, umeentzako ekintzak.
13:00etan, bertsolariak.
14:30ean, baba lehiaketea.
17:30ean, auzoen arteko olinpiadak.
19:00etan, berakatz zopa, tortilla eta ogi tostada lehiaketea.
22:00etan, erromeria Jainaga eta Narbaiza taldeagaz.
23:00etan, auzokoen antzerkia.
23:30ean, mozzorro lehiaketea.
24:00etan, tango lehiaketea.
00:30ean, zozketea eta ostein txokolatea.

San Fausto jaiak. Arantzazu Urri bigarrenak 13, zapatua

20:00etan, herri afaria frontoian.
Menua: patatak errioxar erara, "Luma gorri" oilasko iztarrak brasan erreta, postrea, kafea eta kopea. Ostein erromeria Jokaldi taldeagaz.

ARRATIA

Josune Gorospe eta Izaskun Sagarna EAJ-PNVko hautagaiak Gasteizko parlamentura

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 21eko Legebiltzar-erako hauteskundeetan, Bizkaian EAJ-PNVren zerrendetan, Dimako Josune Gorospe eta Zeanuriko Izaskun Sagarna dagoz hautagai 11. eta 25. postuetan, hurrenez hurren.

Josune Gorospek urte bi daroaz politikan. 2010etik Legebiltzarkidea izan da Eusko Legebiltzarrean eta 2011tik hona Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea

eta Dimako zinegotzia da. Arlo profesionalari jagokonean, Gorospe gaur egun Bizkaiko Foru Aldundian Udal Kirolaren Ataleko Burua da. Aurretik, Ogasun sailan zerga kitatzailea edo gazteri arloan giza-kultur suspertzaile moduan egin dau behar.

Izaskun Sagarna Zeanuriko alkatea da eta urte asko daroaz politikan. Bere ibilbidea sano lotuta dago udal politikari; izan be, hiru legegintzaldi dira Zeanuriko alkate dala eta lehenago be zinegotzi izan zan Zeanurin.

ikasi eta landu **euskara bizia**

Arratiako AEK

Maila eta ordutegi guztiak
Autoikaskuntza

Agirre Lehendakaria 4, Igorre. 94 631 56 57

aek | Garena ikasteko para entendemos pour se comprendre | eman izena www.aek.org 902 362 294

AREATZA

Areatzaganeko etxebizitzetako bat eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea hilaren 8ra arte**Erredakzioa**

Areatzako Udalak eta Azpiegiturak erakundeak Areatzaganeko promozioan 2 eta 3 logeladun, garajedun eta trastelekudun 19 etxebizitza eskeintzeko hitzarmena sinatu dabe. Alokairuan esleituko dira, erosteko aukereagaz. Alokairuaren prezioa 450 eurotik beherakoa izango da hilean eta erosteko aukerea erabili ezker, kopuru hori erostekaren prezioetik deskontauko litzateke. Alokairu kontratuak bost urteko iraupena

eukiko dau. Eskaerak hilaren 8ra arte aurkeztu ahal dira.

Eskaerak hiru zerrenda egingo dira. Bat, Areatzako eskatzaileak, beste bat Areatzan urtebete baino gutxiago errolatuta dagozanak edo Arratiako beste udalerrietan errolatuta dagozanak, eta hirugarrena, Bizkaiko beste edozein udalerrian errolatuta dagozanak.

Eskatzaileen urteko diru sarrerak ez dira izango 42.000 eurotik gorakoak, ezta 15.000 eurotik beherakoak be.

IGORRE

Merke erosteko aukerea**Erredakzioa**

Hilaren 6an eta 7an, aukera azokea egongo da Igorreko Lasarte plazan, AMEK antolatuta. Igorreko aukera azokearen hirugarren edizioa da hau, eta aurrean hamar dendak aterako dabe generoa prezio onean kalera. Zapatuan goizeko hamarretatik arrastiko zortzirak arte egongo dira saltzaileak eta domekan hamarretatik ordu biak arte.

Kuttunki eta Sein ume erropa

dendak; Politte eta Kai erropa dendak; Ainara kirolak eta Enar kirolak dendak; Beasko lurrindendea; Ezkur oinetakoak; Mugarri dekorazio dendea eta Torres iturgindegia dira likidazioa egiteko aprobeitxuko daben establezimenduak.

Merke erosteko aukeraz gainera, erosketak beste modu baten egiteko aukerea be eskeintzen dau azokeak. Generoa plazara ateratzean, eskuragarriago dago eta aire zabalean egin daiteke.



Orain dala urte bi Igorren egin zan aukera azokea.

AREATZA

Bardintasunak aldaketak ekarri daikez Arau Subsidiarioetan**Erredakzioa**

Areatzako Udalak azterlan bat egingo dau jakiteko ze aldaketa ekarriko leukien "Areatzako Hirigintzari buruzko Diagnostikoa: Emakumeen eta gizonen berdintasuneko partaidetza gure udalerrian" izeneko lanean planteetan diran neurri zuzen-

tzailak Hirigintzako Arau Subsidiarioetan. Diagnostikoa hau Areatzako Emakume Foroaren partaidetzeagaz egin zan eta "Areatzako herritarren artean desbardintasunak kentzeako eta bardintasuna bultzatzeko bidean aurrera egitea lortu gura dogu hori eginda" azaldu dabe udal-erriko lehendakariak. Diagnostikoa

ZEBERIO

Milla bat egin dabe karran euskerearen alde

Urri lehenaren 22an "euskaraz bizi nahi dut"

ekimenagaz bat egin eban Zeberio eta euskerearen aldeko lasterketa bat antolatu eban.



Txubel eta zeberioztarrak motor bako ibilgailuetan.

Erredakzioa

Lasterketa horren leloa: "Zeberion euskararen aldeko milla karran" izan zan, egindako distantzia gutxi gorabehera milla batekoa izan zalako.

"Egun horretan be kotxe bako eguna ospatu zan, eta horretarako aitaturako distantzia errepedeko karril bat ebagi egin zan eta semaforoak jarri ziran hori bideratzeko. Lasterketariok beste karriletik egin genduan ibilbidea"

azaldu deutso BEGITUARI partaide batek. Lasterketaren ibilbidea Zeberio plazaetik Sautuolabarri auzora izan zan.

Txubel bizikletan

Kotxe bako eguna izanik, bako txak gura eban moduan egin eikean ibilbidea: oinez, karran, patinetean, patinetan, bizikletan, txirrintolakaz, trizikloan... beti be motor bako ibilgailuak erabiliz. Mota guztietako ibilgailuak erabili zituen zeberioztarrak eta

guztira 155 personak hartu eban parte.

Tartean, "Txubel" herriko pertsonajeak. Honek bizikletaz egin eban euskerearen aldeko milla. Herriko buruhandiak be hartu eban parte eta Tartalo eta Basajaun karran ibili ziran.

Euskerea eta mobikortasun jasagarriaren aldeko jai honetan, jana be ez zan falta. Izan be, jaietako herri afarian sobratutako 14 kg txahal, Austarri Mendi Taldeko kide batzuk "saltza goxo bategaz prestatu eban bezperan" eta bertaratutakoak doban dastatzeko aukerea euki eban.

Ospakizun biribila

Kamiseten eta edarien salmentegaz dirua atera zan, eguraldiak lagundu eban eta jente askok hartu eban parte ospakizun honetan. Hori dala eta, antolatuak pozik agertu dira.

Hau danau antolatzeke talde-lana egin eban zeberioztarrak, eta jente askok hartu eban parte. "Ekimen hau Kontseilutik etorri da. Zeberio Udalak prest agertu zan parte hartzeako, baita diruz laguntzeko be. Ondoren, antolatzeke, udaletik Euskara Batzordeak, eta Ingurumen Batzordeak eta Austarri Mendi Taldeak, Zubialde Eskolak eta Guraso Alkartek egin dabe behar" udal iturrien arabera.

Hori dala eta, "etorkizunerako asmoa, euskerearen egunagaz gertatzen dan moduan, egun hau egutegian biribildu eta ospatzen jarraitutea da, kotxerik bako eguna eta "euskaraz bizi nahi dut" lasterketea, hain zuzen be".

IGORRE

Hizkuntza-erabilerearen kale-neurketaren emoitza**Erredakzioa**

Igorreko kaleetan euskerearen erabilerearen ikerketaren emoitza aurkeztuko ditu Soziolinguistika Klusterrak urri bigarrenaren 4an, 19:00etan Lasarte Aretoan. Klusterrak Igorren egiten dauan hirugarren neurketea da 2011ko hau; aurretik, 2001ean eta 2006an be egin ziran-eta.

Neurketak kalean behaketa zuzenaren bidez lortutako datuak eskeintzen ditu eta errealdade horren barri emoten dau. Euskerearen egoerea ona edo txarra dan, hobera edo okerrera doan jakiteko "erreferentziako neurketea" da Euskera Planeko eretxian. "Izan be, euskerearen egoerea eta bilakaerea modu objektiboan baloratzeko aukerea

emoten dau eta funtsezkoa da euskerearen sustapenean preminarik larrienak zeintzuk diran ezagutu, lehentasunak finkatu, eta horrengan eragiteko ekime-

nak martxan ipinteko" dinoe.

Egun, euskera planak daukan datuen arabera, 2001eko neurketatik 2006kora erabile-reak gora egin eban hiru puntu eta erdi, 32,9tik % 36,4ra, hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, espero ahal zan erabileratik sano behera. Azken 5 urteotan euskereak Igorreko kaleetan euki dauan bilakaerea zein izan dan jakitea egongo da hilaren 4an.

Hilaren 4an izango da kale-neurketaren emoitzen aurkezpene.

DIMA

Topaketa lesbianistak Lapurreketan

Erredakzioa

Hilaren 12tik 14ra, talde feminista eta lesbianoak antolatuta, Euskal Herriko I. Topaketa Lesbianistak burutuko dira Lapurreketa Baserri Eskolan (Dima). Topaketa honeen helburua talde lesbianistak alkartu eta "geure postura politikoaren gaineko hausnarketea egitea, baita zelan izentzen doguzan geure buruak eta geure jokamoldeen gaineko hausnarketea egitea da. Gainera aztertuko dogu taldeen arteko sareak sortu, mantentzen

edo desegin behar diran. Zer da beharrezkoa eta zer ez" azaldu deusie antolatzaileak BEGITURI.

MDMA, Ladyfesta eta 7menos20 taldeak antolatu ditue topaketa honeek.

Eztabaidak, mendia eta jai

Hausnarketa hori egiteko hainbat eztabaida antolatu ditue. Barikuan izango da lehena "Eta zuk zelan definitzen dozu zeure burua?" izeneko. Hurrengo egunean, "Sareak" izeneko eztabaidan taldeen arteko aliantzak aztertuko ditue. Proiektzioak, mendira urtekerak eta jai gaubetan be sartu dabez egitarau barruan.

Domekan Baltzolaria urtekerarekin aurreikusita daukie. "Dima, Bilbo zein Gasteiztik hur dagoalako aukeratu dogu, baina baita inguruaren edertasunagaitik" dinoe.

IGORRE

Urte bitan 16 salmenta postu gitxiago Garben

Erredakzioa

Hilaren 7an izango da Garbeko azokea. Aurten igaz baino 10 salmenta postu gitxiago izango ditu feria honek eta igaz aurreko urtean baino sei gitxiago izan zitu. Berrogeita bi inguru izango dira bertan euren produktuak erakutsiko dabez baseritarrak eta urte bitan 16 stand galdu ditu. Azoka hau 1975ean sortu zan eta Bizkaiko antzinakoenetakoa da.

Azpiegitura BBK-k ipinten dau eta honek zenbat erakusmahai ipini erabakiorra da azokearen tamainan. Izan be, ez da izan baserriaren eskasagaitik behera egin dauala salmenta postu kopuruak. "Igazkoai ezetz ez esateko, ba-

rririk ez da etorriko, eta postu bi eukiezan batzuei, bakarria emon behar izan deusagu" dino Ramon Urkiza antolatzaileak haserre.

Hasiera baten Garbeko gaudu azokan bazan be, gaur egun barazki azokea da. Bizkaia eta Arabako baserriko produktuak saltzean dira bertan, barazkiak batez be, baina gaztaia edo ezta be topau daitezke bertan.

Dana dala, udagoienean baserriko produktuak on eta ugari dira eta honeetarik onenetarikoak Garbeko azokan egongo dira salgai.



Garbeko azokea

BEDIA

Argindarra eta zuntz optikoa sartzeako lanak Astitzen

Erredakzioa

Bediako Udalak Astitze auzoko egokitze eta barritze lanetako azken aurreko fasea ipini dau mar-tan. Fase honetan, argindarraren eta zuntz optikoaren hodiekerak sartuko dira, beste lan batzuen artean. Gainera, hiri-gasa sartuko da eta konsumo gitxi argi barriak ipiniko ditue. Saneamentuko eta euriak jasoteko hodiekerak be ipiniko

dira, baita asfaltu eta kalezada barria ipini be, udal iturrien arabera.

Trafiko berrantolaketea eta baretzea

Bestalde, Bedia-Lemoa N-240 alkargunean trafikoa antolatu eta baretzeko proiektu bat egin dau udalak eta jentauraren egon zan ikusgai urri lehenengoaren 17tik 21era, herritarrak ekarpenak egin eiezan.

ARRATIA



Maiz, Gorospe eta Ziarsolo protokoloa sinatzen.

Genero indarkeriaren biktimen arreta hobetuteko koordinazio protokoloa sinatu dabe

Erredakzioa

Josune Gorospe Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea, Enrike Maiz Osakidetzako Barrualde

Eskualdeko zuzendari-gerenteak eta Jon Ziarsolo Durangoko Ertzain Etxeko buruak sinatu eben urri lehenengoaren 18an Igorren, genero indarkeriaren biktimen prebentzioa

eta arreta hobetuteko protokoloa.

"Protokoloaren helburua da alkarregaz jardutea eta Arratiako udalerrietako andren kontrako indarkeria kasuetan koordinazioa, informazioa eta eskeintza hobetutea. Horretarako aholkularitza, jarraipen eta babes zerbitzua eskeiniko da, eskumenak daukiezan erakunde eta agintarien bitartez. Kasu honeetan inplikaturako eragile guztiak jarraitu beharreko urratsak ezarri dira, biktimari erantzun eraginkorra eta azkarra eskeintzeko" adierazo dabe mankomunitadetik.

Protokoloak, beste ekintza batzuen artean, andrai zuzendutako informazio-gida baten argitalpena eta sensibilizazio kanpaina bat martxan ipintea aurreikusi dau.

Mahai teknikoa

Bailarako erakunde askok eraturako koordinazio mahai bat ipiniko da mar-tan hilaren 4an. Mahai teknikoa izango da eta bertako proposamenak mankomunitadeteko batzorde politikoetan eztabaidatu eta ebatziko dira, mahai teknikoa eta politikoa batera garatzen joateko.

Arretagaz batera, prebentzioa eta sensibilizazioa be lantzean jarraituko dala zehaztu dabe mankomunitadetik.

IGORRE

Lasarte plaza bete zan Euskera Egunean

Erredakzioa

"Euskeraz bizi gura dot" kamisetak eta helburu horregaz bete zan Lasarte plaza urri lehenengoaren 22ko Inbiu egunean. Mihiluze txapelketaren final handia ospatu zan beste batzuen artean.

Irabazleak Institututik Uxune Cantalejo eta Laida Perez de Mendiola izan ziran eta herritarren kategorian Madalina Buda eta Maialen Agirregoikoa. Aitatzekoa da azken bikote honek txapelketan erakutsi dauan abilezia. Gainontzeko bikoteak fin ibili baziran be, zalantza izpi

barik, onenak 16 urteko neska bi honek izan ziran. Finala amaituta, beroari aurre egin behar izan eutsien jai giroan ibili ziran igorretzar euskaltzaleak, temperatura 30 gradutik gorakoa izan zan eta gerizpea lekuri desiratuena.

Giro aparta bazkarian eta ostean etorri zan kontzertu eta erromerian; tartean "euskeraz bizi gura dot" argazkia, bertan egozan, institutuko grafia eta umeak zatzaparretakoak batera egin eben pankartea. Egunari amaiera emoteko, urtero legez, txokolatea egon zan bertaratu ziran guztientzat.



"Euskeraz bizi gura dot" argazkia Lasarte plazan.

ARRATIA

Ikastaroak egingo dabez BEGITUREN irakurleak

Erredakzioa

Aurreko hileko begitu.org-eko inkesta saileko itauna, gure irakurleak ea ikastaroren baten izena emoteko asmorik eukien jakiteko zan. Sei erantzun baino ez doguz jaso eta danak edo egiteko asmoa daukie edo ez dabe oraindino ebatzi zer egin. Izan be erdien erantzuna baiezkoa izan da eta beste erdiak "akaso" erantzun dabe.

Hile honetan barriz, itauna hauxe da: Uste dozu euroa itxi eta pezetara bueltauko dala Espainia?



ARGAZKI LEHIAKETE

Mundu zabalean ateratako 76 argazki egon dira lehian

Erredakzioa

Kuban Cristina Ruizek ateratako argazkia izan da 2012ko BEGITUREN argazki lehiaketako irabazlea eta June Iturriagak Mozambiketik bialdutako argazkia geratu da bigarren. Gatxa izan

da ebatzia hartzea, orrialdeotan ikusiko dozuenez, argazki eder asko jaso doguz eta. Irabazleak Nafarroako landetxe baten as-tegoien bat dauka sari lez eta bigarrenak AMEK emondako 100 euroko bonoa.

76 argazki egon dira lehian, mundu zabaletik bialduta.

Holan, Maroko, Mozambique, Kuba, Euskal Herria, Alemania, Frantzia, Azores irlak, AEK-ko barnetegiti ibiltaria, Islandia, Hegoafrika, Holanda, Galiza, Herrialde katalanak, Kreta, Grezia, Rapa Nui, Hego Korea, Frantzia eta New York-eko bazterrik politenak ikusteko aukerea izan dogu.



Cristina Ruiz bediaztarrak udan Kubara egindako biajean ateratako argazkia. Lehenengo saria.



Iratxe Gondrak Azores irlan Pico de Cruz-en ateratako argazkia.



Gorka Barrenetxeak AEK-ko barnetegi ibiltaritik bialdutako argazkia.



Parisen Jabi Aranguenak ateratako argazkia.

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikea · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia
Zentroa
Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari
Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

arratiako
instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorriko Industriak, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
919 736 616
48143 Igorri Bokoia

ellauri
HOTELA
Naturaz sortuta
Landa Turismoa
Erregina Zerbitzuak
Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

GALANTA
Barrutik janzteko
Zugandik sano hurbil
Lehendakari Agire 25, Igorre
Telefonoa: 94 631 90108



June Iturriaga billaroztarrak Mozambiken ateratako argazkia. Bigarren saria.



Miren Idigoras zeauriztarrak Galizian ateratako argazkia.




Oihane Goioagak Marokoko hegoaldean ateratako argazkia.



Claudiak Morh-ek Kuban ateratako argazkia.



Eduarne Landajak Lekeition ateratako argazkia.



Irene Bilbaok bialdutako argazkia L' Ainsan ateratakoa.

27 lagunek bialdutako
76 argazki heldu dira
aurtengo lehiaketara

 Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz

- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

begitu **10**
urte
arratia ubide zeberio

ERRUGBIA

Denporaldiari ekiteko prest

Ainhoa Duñabeitia

Hasi da aurtengo denporaldia, udako joan etorriak albo batera itxi eta gogor ekiteko prest dagoz Zekorrek sailkapen fasean lehenengo postuan sailkatzeko.

2012-2013 denporaldiko multzoak eginda dagoz, senior mailan multzo bi dagoz, A eta B. Arratiko Zekorrek taldea A multzoan dago, beste zazpi taldegaz batera. Urri lehenengoko azken astegienean denporaldiko lehenengo norgehiagokea jokatzekotan izan ziran, baina aurkarien arazo batzuk zirala-eta partidua atzeratu egin behar izan eben. Hurrengo partidua etxean jokatuko dabe Zekorrek, hilaren 6an 16:30ean Gernika RT B-ren aurka.

Arratiako zekorretako kadeteak osteran lehen jardunaldiko partidua galdu egin eben. Gazteak etetik kanpo neurtu ebezan euren indarrak Eibar taldearen aurka, azken emoitzea 22-5ekoa izan zan.

Neskak, ez dabe ligan parte hartuko, baina ez dabe amore emoten eta entrenamentuak jarraitzen dabe, urtean zehar partiduren bat jokatzeke goiakaz. Arratiarrak animetako deia egiten dabe Behintzak.



Arratiko Zekorrek.

MARTXEA

Arantzazuko Mugarri Bira hilaren 13an

Irati Urien

Beste urte batez, Mugarri Bira antolatu dau Arantzazuko Arginatx Mendi Taldeak. Arantzazuko San Fausto jaietatik kanpoko ekimen hau hilaren 13an izango da aurtent. Urteera goizeko 09:30ean izango da herriko plazatik. Ibilbidea aurreko urteetako bera izango

da, eta eguerdiko ordu batetarako barriro be plazan izango dira ibiltariak. Ogitartekoa jateko aukerea egongo da Bildosolako Industrialdean, Arginatx Mendi Taldearen eskutik. Txangoa amaitu ostean, 14:45ean, bazkaria egongo da Igorreko Arantza jatetxean: babajana sakramentu eta guzti, postrea, kiantza ardaoa, kafea eta kopea. Bazkarira joateko gogoa daukanak izena emon beharko dau urri bigarrenaren 9rako, 20:00ak baino arinago; nahikoa izango da mendi taldeko zuzendari batzako nonori esatea. Izena emoteko orduan ordaindu beharko da bazkaria, 25 euroko prezioan.



Arantzazuko ibilbidea.

TXIRRINDULARITZEA

Julen Zuberok Espainiako Bike Maraton txapelketan

Erredakzioa

Julen Zuberok hamaikagarren postua egin eban Espainiako Mendi Bizikleta Maratoian. Aurtent Sabiñanigon (Huesca) izan zan txapelketa urri lehenengoaren 23an,

eta Zuberok 04:00:30 segunduko denporan egin eban 82 kilometroko ibilbidea, 2.600 metrotik gorako desnibel positiboagaz. Espainiako txapelketa Sergio Mantecón murtziarra da, lasterketan 3 ordu eta 44 minutuko markea eginda.

MARTXEA ETA BIZIKLETA MARTXEA

Kilometro gitxiago izango ditue aurtent Dimako Sisetan mendi eta bizikleta martxak

Erredakzioa

Sisetan Dimako mendi eta bizikleta martxak egonkortzen doaz eta ibilbideak aldaketa batzuk izan ditue partaideai egokitzeko. Izan be, Dimako Udalak eta Gaztetxeak antolatuten dabezan martxa honek laburragoak izango dira aurtent: ibilbide luzeak 24 km izango ditu eta laburrak 16 km. Aurreko urteetan, barriz, luzeak 40 km. inguru izaten zituan eta laburrak 23 km. Bizikleta martxak ez dau luzeera aldatu, eta 40 km. inguru egin behar izango dabez partaideak.

Seigarren aldia da oinezko martxea egiten dala, eta laugarrena bizikleta martxeari jagokonean. Martxea paraje ederretatik pasetan da eta Sisetan mendi martxan jente askok hartzean dau parte. Igaz 323 mendizalek hartu eben parte oinezko martxan, eta 132 txirrindularik BTT martxan.

Ibiltariak goizeko zortziretan urtengo dira Dimako plazatik ibilbideari ekiteko eta bizikletadunak ordu eta erdi beranduego. Indarrak barritzuteko hainbat anoagune egongo dira ibilbidean eta amaitukeran barauskarria eskeiniko dabe antolatzaileak parte hartzaileentzat.



Mendi martxearen kartela.

indar
Instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indarsi@indars.es • www.indars.es

FIXMI
KOPIDENDA JAONE IRAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5
48140 IGORRE
BIZKAIA
Tif: 94 612 02 41
Fax: 94 612 02 46
kixmikopi@gmail.com

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

Ardoak Edariak

94 673 64 02 - Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTUETAN
ONDARUN BEGIZTAN
ASIGURUETAN

Sabino Arana, 3-Txarra, 34 875 11 41 - Fax: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

axular
KUTXA OGIKOR

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASORIKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Anatia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

MENDI-LASTERKETEAK ETA MARTXEA

Etorri da Gorbeia Suzien

Urri bigarrenaren 12tik 14ra ehundaka lagun hurreratuko dira Zeanurira, mendi lasterketea eta martxearen inguruan antolatu diran ekintza guztiakaz gozatzeko.

Erredakzioa

"Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia" mendi lasterketearen oihartzunak Euskal Herriko mugak gainditu dauz, eta, besteak beste, Frantziako eta Espainia osoko korrikalariak lehiatuko dira Zeanurin hilaren 13an. Ikuskizun entretenigarria izango da martxea egitea aukeratzen dabenez, euren ondotik pasetan ikusiko da bezalako ospe handiko kirolariak galapan. Munduko onenetarikoak, Ionut Zinca, Oihana Kortazar edota Agusti Roc lez; Euskal Selekzinoko Javi Olaberria, Aitziber Ibarbia, Oier Ariznabarreta eta Maite Maiora; eta Zigor Iturrieta (The North Face), Imanol Goñi, Fernando Etxegarai zein Hassan Ait Chau, aurtengo Euskal Kopa irabazteko aukera gehien daukana. Izan be, ibilbide

diferente bi egon arren, ibiltariak eta korrikalariak ibilbide-tarte batzuk konpartiduko dabez.

Lehenengo ibilbidea luzeena da, 21 urtetik gorako korrikalari guztiak egin beharko dabena. Ibilbide horrek 28 kilometro eta 1.750 metroko desnibel positiboa dauka, eta bidean 7 anoagune izango dira, parte hartzaileak indarrak barritzatzeko. Antolakuntzakoak kontu handiz aukeratutako ibilbidea da eta antxinako bideak berreskuratzen eta garbitu dabez, Gorbeia ikuspuntu diferentea eskeintzeko. Urri lehenengoaren 30ean, domekan, 31 lagun batu ziran Zeanuriko plazan ibilbidea probetako, eta oso pozik amaitu eben korrikalariak zein ibiltariak.

Ibilbide laburrak, barriz, 21,4 kilometro eta 1.100 metroko desnibel positiboa dauka. Martxa hau egitea

aukeratzen dabena Arrabako landetatik Zenigortarako bidea hartuko dabe segiduan, Gorbeia tontorrean igon barik, eta Zenigortan ibilbide nagusiagaz bat egingo dabe osterabe, herriko plazara. Bigarren ibilbide hau izango da korrikalari kadete eta juniorrak egin beharkekoa, 15 urtetik 20 urtera bitartekoak; baina honeen lasterketeak Ziburun izango dau urtekera. Holan, gazteen lasterketak 16,8 kilometro eta 455 metroko desnibel positiboa izango dau, Euskal Mendizale Federazioaren araudia betez.

Hainbat modu dagoz Gorbeia Suzien parte hartzeako, eta norberak aukeratuko dau erakargarrien iruditzen jakona. Izena emoteko erreztasun guztiak Interneten topatu leitez, www.gorbeiasuzien.com webgunean, eta martxarako, egunean bertan be emon leike izena

jenteak. Gainera, korrikalari eta ibiltari guztiak kamiseta bana emongo jakie eta bazkaria doban eukiko dabe; era berean, marka ezagunetako opari piloak zozketatuko da euren artean.

Lasterketa bat baino gehiago

Edozelan be, Gorbeia Suzien ez da egun bakarreko egitasmoa. Astegoi osoko egitaraua prestatu dabe antolatzaileak, eta Zeanurin dana lotuta dago aurrera eroateko, heritarren laguntza eta Arratiako hainbat persona, talde eta enpresaren laguntzaz kontau dabe.


Jaia bariku arrastian hasiko da frontoian, 20:00etan. Lehenengo, antolakuntzako kideak ibilbideaz berba egingo dabe, batez be korrikalari zehaztapenak eta gomendioak emoteko; eta ondoren, Alex Txikonek bere espedizino baten filma aurkeztuko dau. Kanpotik datozenak Zulaibarren ipiniko dan karabaning gunean lo egiteko aukera eukiko dabe.

Zapatuan, goizean goiz urtengo dabe ibiltariak eta lasterketariak, baina herrian gelditzen diranak sekulako jolas eta ekintzakaz gozatu dabe Ibarretako gunean. Bertan, umeentzako puzgariez gainera, adin guztiakentzako roko-dromoa eta *slackline*ak egongo dira, eta erreka alde batetik bestera gurutzatuko dauan *slackline*a be bai, atrebidenentzat. Olgau gura ez dabena, mendiko materiala ikusi eta erosi ahal izango dabe Gaikar Kirolak eta Mendiko Etxea dendak montauko dabena azokan. Egurdian, sari banaketea, opari zozketea eta herri bazkaria izango dira. Bazkaria doban izango da parte-hartzaileentzat, eta bost euroan beste guztiarentzat. Eta arrastiko seiretan Bizkaiko Trontza Txapelketearen finala egongo da frontoian, andrazkoena eta gizonezkoena.

Herriko plazako txosnetan eta tabernetan edariak eta bokatak salduko dira bisitariarentzat gauera arte. Eta gauean, 21:30ean, Bidean Galduta talde arratiarraren kontzertua izango da plazan, eta gero erromeria Zirkirik Bez taldeagaz.

Ekintza potentia aurrekusi da domekan be bai, BEGITUREN laguntzeagaz antolatuta, aldizkariaren 10. urteurrenaren ospakizunen barruan. "Emakumea eta Kirola" gaia jorratuko dauan mahai-inguru izango da, eta bertan hizlari izango dira Maider Unda burukalaria, Londresko Olinpiar Jokoetan brontzeko domina lortu barri dauana; Oihana Kortazar, munduko Km Bertikaleko txapelduna; Irati Anda, hiru aldiz Espainiako Zailtasun Eskaladako txapeldun izandakoa; eta Naia Alzola durangoztarra, neguko triatloietan mundu mailan ibilitakoa eta ziklo krosetako Euskadiko Kopako txapelduna. Naia Alzola Diman bizi da, eta mahai-inguruaren antolotzaileak lagundu deutse Arratiako neska kirolari guztiak egin dan bideoan. Mahai-inguruan andrazkoen kirolaren ikuspuntu diferentek landuko dira, gabeziez eta oztopoez berba egingo da, baina andrak kirola egitea animetako beharraz be bai. Andran eta kirolaren arteko harreman estua bultzatzea izango da ekimenaren helburuetako bat, eta gaiaz luze berba egin ahal izango dabe hara hurbilduko diran guztiak, baita gero Igitie alkarteak prestatuko dauan mokaduan be.

Hasi da Gorbeia Suzienerako atzerako kontaketea. Urri bigarrenaren 4an Bilboko La Granjan aurkeztuko da "Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia" mendi lasterketearen lehenengo edizioa. Prensurrekoan, Igotz Zuluaga zeanuriztarra egongo da Eguzkilore markearen izenean, Alex Txikon mendizale lemoaztarren lasterketearen alde teknikoak azalduko dauz, Gorbeia Suzien taldearen ordezkariagaz batera, eta Zeanuriko alkatea, Izaskun Sargarna izango da bertan babesa erakusten. Astebete geroago, urri bigarrenaren 9an, martitzenean, 19:00etan izango da Arratiako aurkezpena, Zeanuriko Kultur Etxean. Egun horretan, Eguzkilore, Udalaren eta Gorbeia Suzien taldearen ordezkariak arratiarren jakin-min eta galderai erantzun deute.



Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia lasterketa eta martxearen ibilbideak.

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

expert ARRATIA
E.posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
Areizako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areizta
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

ANTZERKIA

Txotxongilo ikuskizuna
Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

Teatre Nu taldeak *Aitona Matias* izeneko txotxongilo lana eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean hilaren 13an, arrastiko sei t'erdietan. Alzeheimerraren gaia jorrazten dau modu baikorren eta familiari zuzenduta dago antzezlanaz.

Noraren aitita ez da bere izenaz oroitzen. Aspaldi hasi zan memoria galtzean. Haren oroitzapenetan zehar egindako biaje baten bidez, Nora aititari laguntzeko zer egin daiketan pentsetan hasiko da. Aitita eta ilobearen istorioa da hau, oroitzeko beharraz, ikasteko gogoaz eta sortzeako ahalmenaz berba egiten dauana.



Aitona Matias antzezlanaz.

LEHIAKETEAK

Egutegia egiteko argazki lehiaketea antolatu dau udalak Lemoan

Erredakzioa

Lemoako Udalak I. Argazki Lehiaketea antolatu dau, herriko argazkiakaz 2013 urterako egutegia egiteko. Argazki bakarra bialdu ahal dabe partaideak zemen-diaren 9ra arte kultura@lemoa.net helbidera. Argazkiok zuri-baltzean, koloretan edo sakeleko telefonoagaz egindakoak izan daitezke eta 15 x 20 cmko gitxienezko tamainakoak. Gaia, Lemoa izango da.

Aurkeztutako guztien artean 12 argazki aukeratu dira eta honeekaz udaleko 2013 egutegia egingo da. Saritutako argazki bakotzak, egutegian agertzeaz gainera 30 euroko saria be jasoko dau.

IKASTARROAK

Herrietako udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dago oraindino

Erredakzioa

Arantzazun, Diman, Zeanurin eta Zeberion hasi dira udalak antolatutako ikastaro batzuk eta beste batzuetan jentea izena emoten dabil. Arantzazun, udalak pilates egiteko eta eskulanetan trebatzeko aukerea eskeini dau. Dimak, bardin, eskulanak eta pilates ikastaroak antolatu ditu. Zeanurin pilates, yoga, pres-takuntza fisikoa, jubiladuentzako gimnasia, umeen jantza eta pintura ikastaroak egin daitezke eta Zeberion euskerea, pilates eta balleta.

Herrri honeetan eta besteetan bete ez diran ikastaroetan izena emon daiteke oraindino plazak bete arte.

BEGITU 10 URTE

Urteurreneko hurrengo ekitaldiak
Zeberio, Zeanuri eta Areatzan izango dira

"10 urte, 10 herri, hamaika ekintza" kanpaina aurrera doa eta hile honen lehen partean hiru ekitaldi egongo dira Zeberio, Zeanuri eta Areatzan, hurrenez hurren.

Erredakzioa

Hilaren 5erako kantu-poteoa antolatu dabe Zeberion, arrastiko zortziretan. Antolatzaileen ustez merezidu izango dau bertara joatea, Musika Eskolako Iker Alluren trikiak eta Argi Zamezaren abotsak giro berezia sortuko dabelako barikuko poteoan.

Galdu ezinekoa be Zeanuriko zitea. Gorbeia Suzien Zeanuriko taldeagaz batera antolatuta hilaren 14an, Maider Unda burukalari olimpikoa, Irati Anda Espainiako eskalada txapelduna izandakoa, Naia Alzola Euskadiko Kopako ziklo-kros

txapelduna eta Oihana Kortazar Europako txapelduna dan mendi lasterketariak "Emakumea eta kirola" izeneko mahai-inguruan euren esperientziak, bizipenak eta erretien barri emongo dabe eguerdiko 12:00etan, Zeanuriko Kultur Etxean.

Azkenik, hilaren 17an, Jon Sarasuak berbaldia emongo dau Areatzako Udal Areatoan 19:00etan, euskerea eta hedabideen etorkizuna gai hartuta, Areatzako Udaleko Euskera Batzordearen laguntzeagaz antolatutako ekintza da hau.

Honeekaz 6 dira BEGITU bere 10. urteurrenean antolatutako eki-

taldiak. Beste bost ekitaldi falta dira, ekitaldiok hamaika izateko.



GORBEIA SUZIEN
URRIAK 13 ZEANURI (Bizkaia)
13 Octubre
EGUZKILORE SARI NAGUSIA
EGUZKILORE

www.gorbeiasuzien.com

EGITARAUA*	PROGRAMA*
URRIAK 12 OSTIRALA	Viernes 12
19:00 Dortsalen banaketa	
20:00 Alex Talikonen omenaldia	
Proyección de Alex Talikon	
URRIAK 13 LARUNBATA	Sábado 13
05:30 - 07:00 Oñatekoen Inskripzioa	
07:00 - 09:00 Dortsalen banaketa	
07:15 Martxoaren Irteera (A eta B ibilbideak) Salida de la marcha a pie	
09:00 Alex Talikoni omenaldia	
09:15 Lasterketaren Irteera (Absolutua eta Sub-23) Salida de la carrera	
10:00 Umeen martxa	
10:30 Umeentzako jokoak, slackline, rokodromoa...	
14:30-15:00 Herri bazkaria Corralo popular	
18:00 Bikiako Triatza Txapelketaren Finala	
21:30 Bidean Galduta kontzertuan eta erroberia Zirkonik Bez taldearekin	
URRIAK 14 IGANDEA	Domingo 14
12:00 "Emakumea eta kirola" mahai-ingurua: Maider Unda, Oihana Kortazar, Irati Anda eta Naia Alzola. Mesa redonda "Mujer y deporte"	
13:30 Mokadua IGITE. Arrastako nekazari eta abeltzainen elkarteak prestatuta	

ANTOLATZAILEAK
EGUZKILORE

LAGUNTZAILEAK
Guztira laguntzaileen zerrenda eguneratua ikusi nahi baduzu sartu: www.gorbeiasuzien.com/webgunea

BABESLEAK
BFA DFB, kelleam studios, edp naturgas energia, s'il montana AGROECOSYSTEM HEALTH CARE

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

Erdi Aroaren amaierako ondarea ezagutzeko bisitaldi gidatuak

Urri bigarrenean Ondarearen Europako Jardunaldiak ospatuten dira eta urtean-urtean Arratiako herri gehiagok hartzean dabe parte jardunaldiotan.

Erredakzioa

Aurten lau izango dira parte hartuko daben herriak: Areatza, Igoerre, Ubide eta Zeanuri, hain zuzen be. Ondarearen jardunaldiak gai baten inguruan antolatzen dira eta aurten, Erdi Aroaren amaiera da gaia.

"50 bat urteko aldia -1475 eta 1525 bitartekoa- non Bizkaia bandoen arteko burruken indarkeriaren ondorioz lotua izatetik, peninsulako lurralde baketsuenetako eta oparoenetako bat izatera pasau zan" dinoe Foru Aldunditik. Areatzan, urribilduaren garapena erakusten daben bisitaldi gidatuak egingo dira hilaren 12 eta 13an, eta Euskal jaia 20an; Igorren Elgetzuko Santa Lutzia eta San Kristobalera bisitaldi gidatua hilaren 6an; Ubiden kaltzadea ezagutzeko aukerea egongo da hilaren 13an, eta Larreen mankomunidadearen zeharkaldia hilaren 27an izango da; eta Zeanurin karobia eta errota bat ikusteko bisitaldi gidatua izango da hilaren 6an.

Areatzako urribildua

Areatza urribildua Gasteiztik Bil-

boraino joian bidean sortu zan. Hasieran herri txikerra zan, kale bi eta kantoi bik osotuta. Baina 1.500 inguruan, merkataritzearen eta siderurgiaren gorakadea zala eta, uribildua handitu egin zan eta etxe barriak eraigi ziran estilo mudejarrari jarraituz. Hau danau azaltzeko udalak bisitaldi gidatuak antolatu ditu, hilaren 12 eta 13an, goizeko 11:00 eta 12:00etan eta arrastiko 17:00 eta 18:00etan, udaletxeko arkupeetatik abiatuta.

Ondarearen jardunaldien barruan, aurreko urteetan legez, jaialdi etnografikoa ospatuko da hilaren 20an Areatzan. Aurten-go gaia: jokoak, kirola eta jantza izango da.

Igorreko Santa Lutzia eta San Kristobal ermita erromanikoa

Hilaren 6an goizeko 10:00etan Igorreko Kultur Etxean batuko dira Santa Lutzia eta San Kristobal ermita erromaniko hau ezagutu gura dabenak. Antzeko historia dauka Igorreko Elgetzuk. Erdi Aroaren bukaeran Elgetzu Otxan-

diotik Arabaraino joian bide batek zeharkatzen eban. Merkataritza eta laborantzen gorakadeak sasoi oparo bateri emon eutsan hasikerea eta tenplua barriztu eta baserriak eraigi zituen orduan.

Angel Larrea historialariaren gidaritzapean izango da bisitaldia eta amaitutakoan barauskarria egongo da partaideentzat.

Ubideko kaltzadea

Oraindino ikusi daiteken Erdi Aroko kaltzada batek zeharkatzen dau Ubide. Kaltzada honek Mesetea eta Flandes arteko bidea egiten eban eta artileak, ehunak eta udalerriko oletan landutako burdina garraiatzen zan handik. Sasoi haretan herriak izan eban zabalkuntzeak San Juan eleizea berreraikitea ahalbidetu eban. Bisitaldia egin gura dabenak hilaren 13an, 11:00etan edo 12:00etan daukie zitea herriko plazan.

Hilaren 27an, barriz, mendiko ibilaldia eginez ezagutu daiteke bertako ondare kulturala. Izan be, gizaldi bat baino gehiago da Ubide eta Zeanuriko udalak bildu egiten dirala larreen mankomuni-

darearen urteroko kontuak egiteko. Larreen aprobetxamentuaren inguruan udalerrri biak, gitxienez XVI. gizalditik, izan zituen gaztakai amaiera emoteko hasi ziran bilera honeek egiten. Bilera hau dala eta, Ubidetik eta Zeanuritik igaroz, Gasteiz eta Bilbo lotzean zituan Erdi Aroko kaltzadearen bidea jarraituten dauan ibilaldia antolatuten da.

Zeanuriko San Justoko karobia eta Olabarriko errotea

San Justoko karobia eta Olaba-

rriko errotera bisitaldia antolatu dau Zeanuriko Udalak hilaren 6rako. Interesatuak 10:00etan batuko dira Zeanuriko plazan.

San Justoko karobian karea egiten zan. Kareak garrantzi handia eukan gizarte tradizionalan eta zeregin askotarako erabilten zan: eraikuntzan baserriak zuritzeke; nekazaritzan ongarrri gisa; abeltzantzan ukuiluak desinfektetako...

Gero Olabarrira joango dira bisitariak. Olabari burdinola izan zan XIX. gizaldian errota bihurtu zan arte.



Areatzako etxe mudejarra.

DUNBA

Lokalen arazoa gazteen ikuspuntutik



Gazte lokal bat.

Irati Ausmendi eta Elisa Medina Arratia Institutuko ikasleak

Zergaitik pentsetan dozue lokala behar dozuela?

Neguan, kanpoan hotz handia egiten dau eta herrian beroa dagoan leku bakarrak tabernak dira, baina tabernetara ez gara sartzean arrastia pasetan. Udan

be, bero lar egiten dau kanpoan egoteko, eta pentsetan dogu lokalean ondo egongo garala.

Ze arazo ekarten dauz lokalak?

Lokalen gainean bizi diran personak, keju egiten dira lokaleko jentek zarata asko egiten dau-lako edo ez jakielako gustetan lokal bat egon daitela euren etxe azpian. Gero jaubeak be kejetan dira batzutan, normalean lokalean dagozanak erre egiten dabelako.

Pentsetan dozue lokal gehiago egon behar dirala? Zergaitik?

Bai, guk pentsetan dogu lokal gehiago egon behar dirala ze gazte asko dabiz lokalak topetan. Gainera lokalak kentzean hasi dira, lokal horreen gainean bizi dan jentea keju egiten dala. Danok gura dogu lokal bat, ze kanpoan ezin da egin gura doguna, jente asko dabilelako kanpotik.

Zergaitik pentsetan dozue jaubeak hasarratu egiten dirala?

Guk pentsetan dogu lokalen gainean bizi dan jentea kejetan

dalako dala, zarata asko ateraten dogulako eta lokaletan erre egiten dala enteretan diralako.

Ze diferentzia dago kanpoan edo lokalean egoteaz?

Kanpoan neguan hotz egiten dau eta udan bero lar. Gainera kalean ez dago lekuri egoteko, beste leku guztietan dago jentea, orduan ba ezin dozu gura dozuna egin.

Zergaitik pentsetan dozue zuok dagozala lokal gehiago salgai?

Krisia dagoanez, lokalaren jaubeak dirua lortu gura dau, eta horretarako lokalak saltzean hasi dira, ez dabezalako ezertarako behar edo badakielako gazte asko dabilela lokal bat topetan.

Zenbat persona egon behar dira lokal baten?

Ba ez dakit, segun zelangoa dan lokala. Handia bada jente asko sartu leiteke barruan baina txikia bada ezin da jente askorik sartu batzutan jaubeak hasarratzen diralako.

Zergaitik pentsetan dozue lokalak kentzean dabizala?

Lokalak ez dabez gazteak bakarrik behar. Jente nagusia be lokal



bila dabil, negozio bat ipinteko, eta jaubeak gurago dabe lokala jente nagusiari emon gazteari emon baino. Guk pentsetan dogu, lokaletan dagoan ambienteagaitik be kentzean dabizala lokalak.

Zenbat pagauko zeunkie lokal batagaitik?

Lokalak begiratzen hasiko ginan eta merkeena hartuko geunke. Zenbat eta jente gehiago egon lokala hartzeako prest, gitxiago ordaindu behar da. Lokal bat gura badogu, 50 euro bai ordainduko geunkez hilean.

Zelan aukeraturen dozue lokal bat?

Prezioa eta espazio hartzean doguz kontuan normalean. Merkea eta handia bada, birritan pentsau barik hartzean dogu lokala.

AGENDEA

URRI BIGARRENAK BEDIA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 11ra arte, 2012ko lehenengo seihilekoan egindako ekintzen argazkien erakusketea liburutegian.

URRI BIGARRENAK 2 BEDIA

Jubilauen eguna. Udak antolatuta Biarritz-Kasinoa-Oiarzun urtekera.

IGORRE

18:30ean Lasarte Aretoan parte-hartze foroetako batzarren balantzearen aurkezpena.

URRI BIGARRENAK 3 BEDIA

19:00etan, Bediako Irakurle Klubean Harkaitz Zubirk *Exekalte* liburua komentauko dau.

LEMOA

19:00etatik aurrera, *Stretching* (luzamentuak) saiorako izen emotea Ganzabaleko lokalean.

URRI BIGARRENAK 4 DIMA

Sanfreskuak Indusin. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

IGORRE

19:00etan, Igorreko euskerearen erabilerearen kale-neurketaren emoitzen aurkezpena Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 5 LEMOA

19:00etan, *stretching*eko saioa Ganzabaleko lokalean.

20:00etan, Lemoako Korak antolatuta kantu-pote Arrabitik.

DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliatuen aldeko konzentrazioa. Herrira-k antolatuta.

ZEBERIO

20:00etan, kantu-poteoa Iker eta Argi taldeagaz. Zeberioko plazan. BEGIRUREN 10. urteurrena dala eta.

URRI BIGARRENAK 6 BEDIA

18:00etan, zinea *Garxot* filma liburutegian eta ostean meriendea.

IGORRE

10:00etan, Elgetzuko Santa Lutzia eta San Kristobalera bisitaldi gidatua. Igorreko Kultur Etxetik urtenda.

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, AMEk antolatuta aukera azokea Lasarte plazan.

ZEANURI

10:00etan, San Justoko karobira eta Olabarri errotara bisitaldi gidatua. Zeanuriko plazan.

URRI BIGARRENAK 7 IGORRE

10:00etan, baserriko produktuen azokea Garben.

10:00etatik 14:00etara, AMEk antolatuta aukera azokea Lasarte plazan.

17:00etan, umeentzako zinea *Los cachorros y el código de Marco Polo*. 19:30ean, zinea *El legado de Bourne*. Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 8 ARANTZAZU

Sanfaustoetako herri afarirako izena emoteko azken eguna.

URRI BIGARRENAK 10 LEMOA

19:30ean, jai batzordeak bilera jaien balorazioa egiteko udaletxean.

URRI BIGARRENAK 12 DIMA

12:00etan, eta hilaren 14ra arte, Euskal Herriko I. Topaketa Lesbianistak Lapurreketa Baserri Eskolan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekera hilaren 14ra arte. Canto Cabronero (1.996 m), Los Moledizos (2.297 m), Pico Jario (1.913 m).

ZEANURI

20:00etan Alex Txikonen proiektzioa frontoian Gorbeia Suzienek antolatuta.

URRI BIGARRENAK 13 ARANTZAZU

09:30ean, Mugarri Bira mendi urtekera plazatik urtenda.

20:00etan, San Fausto jaiak. Herri afaria frontoian. Ostean, erromeria Jokaldi taldeagaz.

AREATZA

11:00etan, 12:00etan 17:00etan eta 18:00etan, Areatzatik bisitaldi gidatua "Hiribilduaren garapena". Udaletxeko arkupeetatik abiatuta.

23:00etan, Bixer tabernan Jabier Mañón umorista.

DIMA

08:00etan, Sisetan mendi martxa. Plazan.

09:30ean, Sisetan bizikleta martxa. Plazan.

IGORRE

18:30ean, Teatre Nu-k *Aitona Matias* txobxongilo lana eskeiniko dau Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Headhunters*.

UBIDE

11:00etan eta 12:00etan, Ubideko kaltzadatik bisitaldi gidatua. Herriko plazan.

ZEANURI

07:15etik-08:00etara Gorbeia Suzien martxearen urtekera. 09:15ean Gorbeia Suzien lasterketearen urtekera. 13:30ean, sari banaketea. 14:30ean, herri bazkaria. 18:00etan, Bizkaiko Trontza txapelketaren finala. 21:30ean, Bidean Galduta kontzertuan eta Zirkunik Bez taldeagaz erromeria.

URRI BIGARRENAK 14 AREATZA

11:00etan, 12:00etan 17:00etan eta 18:00etan, Areatzatik bisitaldi gidatua "Hiribilduaren garapena". Udaletxeko arkupeetatik abiatuta.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Piratas*.

19:30ean, zinea *Headhunters* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

12:00etan, "Emakumea eta kirola" mahaingurua. Maider Unda, Oihana Kortazar, Irati Anda eta Naia Alzola. BEGITUK Gorbeia Suzienegaz batera antolatuta.

13:30ean, kopautxoa Igitie Arratiako Nekazari eta Abeltzainen Alkarteak prestatuta.

Bizikletearen mekanika ikastaroa 6an

Hilaren 6an, Lemoako kiroldegian bizikleta tailerra egongo da 10:00etatik aurrera, egun osoan zehar. Izena bezpera arte emon daiteke. Tailer honetan bizikletea konpontzen eta modu egokian mantendutik ikasi daiteke.

"Bizikletearen aspektu teknikoak plazaratuz, bere erabilera eta honek dakarzan onura personal eta sozialak bultzatzea helburu daukan tailer edota eskolea da. Horretarako norberak bere bizikletea ulertu eta erabateko etekina ateratzeko beharrezkoak diran azalpenak, laguntza eta tresnak eskeiniko dira" azaldu dabe udaletik.

Bazkaiten geratzeko aukera be badago, bost euro ordainduta.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behea (Igorre).

DANERIK

ETXEA ALOKATU GURA DOGU

Alokatzan dan baserri edo terrenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

GARBIKETAK

Etxeak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo klase partikularrek emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu

zenbaki honetara 600 759 434 (Naiara) Telefonoa.

LEKU BILA

Txakurrak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

UMEEN ZAINTZAK

Umeak esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

KLASE PARTIKULARRAK

Euskal Filologian eta Haur Hezkuntzan titulauako neska gaztea naz eta klase partikularrek emoten dodaz. Esperientziaduna. 652 744 411 (Itziar).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com- era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Aitona Matias antzezlanerako.

Jose Antonio Peribañez (Igorre)
Klara Astondoa (Areatza)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Headhunters filmarako.

Albaro Legarreta (Igorre)
Jasone Aldekoa (Zeberio)

Igorreko Kultur Etxea
Lasarte Aretoa



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ahuldu. 2.- Azagari. Letra bat.
3.- biltzeko onomatopeia. Emea ez dana. 4.- Letra bat. Amaren ama. 5.- Idiak geldiarazoteko interjekzioa. Bokala. Ospa, alde. 6.- Eroso. Sufrea. 7.- Birritan, umeen berbetan, jo. Gorputz atal bat. 8.- Bokala. Barritsu. 9.- Pobrezia.

GOITIK BEHERA

1.- Birritan, umeen berbetan, ura. Zati. 2.- (Atz.) Abizena. Edo. Bokala. 3.- Aienea. Bokala. Ezetza. 4.- Abade, arima-jagole. 5.- Litia. Bokala. Aholku. 6.- Bostehun erromatar. Arrainak harrapatzeko. Kolore arreko intsektu hegalaria. 7.- Pausu. Gitxi falta.




Topau zazpi animalia haragijaleen izenak.

M	A	R	A	Z	I	T	A	R	A
E	H	I	K	O	L	A	E	N	E
Z	A	I	N	K	O	T	X	I	A
A	Z	T	E	L	A	I	T	Z	A
U	K	O	I	N	E	H	A	U	G
G	A	R	G	A	A	Z	P	I	N
O	T	H	A	R	T	Z	A	I	N
Z	A	M	E	I	A	R	M	U	Z
T	M	O	R	A	M	U	P	I	E
A	O	R	A	O	G	A	I	L	A
N	T	X	I	S	I	K	O	U	R
A	Z	E	R	T	O	B	I	J	O
G	A	A	I	O	H	E	L	U	Z
I	R	K	O	N	E	Z	A	L	O
E	I	H	A	R	R	U	G	A	Z

AKIMIKO

Aitziber



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tlxoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Audi, Los Chopos, 35 (Nugat) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietan, 3 48330 LEMOA, Bizkaia
Tel. 650 482 830 fax 650 200 727

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3a ☎: 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎: 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
• Bobbi • Ray • Aranda
• Ace • Guisabter • Arandaga
• Guandele • Leiz • Haspasa
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 48140 314 246
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baleonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 23
Tlxoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@coavn.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karmala eskolaraz zein erdoraraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 34 31 Faxo 94 673 70 83
e-posta: unakau@euskalnet.net

ESKEAN KRISTO

"Prest egon arte ez gara bueltauko"

Arratiako musika panorama oparoan taldeak jaio, hazi, nahastu, hil eta berritu be jaio egiten dira. Kokoteko, Nagi Faktori eta Zaustu izan ziran Eskean Kristo taldearen harrobia. Holan, Nagi Faktori batera barik gelditu zanean, Imanol Arresek bajua alde batera itxi eban eta batera jotzen ikasteari ekin eutsan, Zaustuko Peio Artetxe bajjstea fitxau eben, Igor Delgadok eta Alex Harillok gitarra bana hartu eben eta Pello Artaberen abots bereziak biribildu eban formazino barria. Orain, Igor atzerira joan da eta Eskean Kristoren etorkizunak ze itxura eukiko dauan jakin gura izan dau BEGITUK.

Erredakzinoa

Taldekide bat joan egin da. Berritu be aldatuko da taldea?

Artetxe: Asko botako dogu faltan Igor eta, hasiera baten, ez dogu beste gitarristarik bilatuko; laukote lez segiduko dogu. Baina gure izaera mantenduko dogu.

Nondik dator Eskean Kristoren izaera hori?

Harillo: Peio Artetxe heldu zanean Nagi Faktoria, aldaketa batzuk egin gura izan genduzan taldean, eta ebatzi genduzan kontzeptu bari bat sortzea. Musika gogorragoa egiten hasi ginan, *makarragoa*. Funzionau egiten ebala ikusi genduzan, eta Zeanuriko jaietan emon genduzan lehenengo kontzertua, 2011ko abuztuan. **Lehenago ze musika estilo egi-**

ten zenduen?

Artetxe: Rock & roll leunagoa, argiagoa, ez hain distorsionaua...

Artabe: Lehenengo abestietatik gehien gustetan jakuzan orain be kantetan doguz, baina moldatu egin doguz, eritmoa arindu deutsegu. Kanta horreetako bat "Eskean" da.

"Eskean" kantea? Hortik dator taldearen izena?

Artabe: Bai. Asko gustetan jakun kantea; berezia da, modu berezian sortua.

Harillo: Parranda baten ostean sortua, Zomozan... Hobeto hori ez kontetea.

Baina arraroa da kanta baten izena aukeratzea, ez?

Artetxe: Bai, normalean taldearen izenak esanguratsua izaten dira, baina guk pentsau genduzan: "ipi-

niko deusagu lehenengo izena eta topauko deusagu gero zentzuna". Eta holan izan zan. Taldearen hastapenetan *pelaute* gengozan eta beti genbilzan jenteari gauzak eskatzen, beti eskean.

Baina Eskean Kristo zarie. "Kristo" nondik dator?

Arrese: Pellori buruan sartu jakon; bere idea mistikoetako bat.

Artabe: Abizena behar genduzan, eta bajjsteak mezako kanten zatiak botaten ebazan kontzertuetan, hagaitik... Eta Eskean Kristo izen erakargarriagoa da, ezta?

Orduan, izenak ez dauka inolako koherentziarik...

Artetxe: Baina batzutan estetika kontua baino ez da! Izenaren estetika, estetika eszenarioan...

Izena originala daukazu eta zuen kantak sortzean dozue, baina bersinoak be egiten dozue. Ze talderenak?

Arrese: Sixty Sexers, Kuraia, Rolling Stones, Turbonegro, Cicatriz... Baina guk ez doguz taldeak bersionetan, guk gustetan jakuzan kantak bersionetan doguz. Oso talde diferenteen kantak hartzean doguz.

Eta zuen abestietan badozue beste taldeen eraginik?

Artabe: Lehenengo eta behin rock & roll zaleak gara eta horregaitik jotzen dogu rock & rolla. Eragin diferenteak daukaguz, gustetan jakuzan taldeak elikatzen gaituelako. Eta harro gagoz jenteari beste talde batzuk gogorazoteaz; norbere influentziak ez dira

ostondu behar.

Edozelan be, zuen estiloko talde asko ez dago Euskal Herrian...

Artetxe: Talde barriak eredu modernoak hartzean dabez, baina gure erreferentziak nahiko antzinakoak dira, 70eko hamarkadakoak. Ez dogu esango gauza barriak egiten doguzala. Baina guri pasetan jaku, zelan batzutan pasetan dan, bazoazela armiora, hartzean dozula urteetan erabili ez dozun kamiseta bat, eta atzera be erabilten hasten zarala. *Revival* kutsua daukagu.

Zein da zuen helburua? Zertarako egiten dozue musikea?

Artabe: Famosoak izateko eta diru asko irabazteko!

Artetxe: Nik *rolling stonea* izan gura dot!

Hori da ametsa, eta Eskean Kristok arrakasta izango dau?

Artabe: Esperantzara kondenauta gagoz, Gari lez.

Arrese: Suerte kontua da. Ahalegintzen gara ahalik eta kontzertu gehien emoten, ze hori da modua aukerea sortzeako...

Baina orain, Igor joan danez, txapaulta egongo zarie denporaldi bat...

Arrese: Lan asko daukagu egiteko. Aprobetxauko dogu kontzertuetako errepertorioa aldatzeko. Urtebete egin dogu kanta berak jotzen, eta eszenarioaren gainean kanta barriak joteak ezerk baino gehiago motibetan dau.

Noiz bueltauko zarie eszenatikietara?

Artetxe: Ez dago jakiterik. Prest egon arte ez gara bueltauko.

Ba, orduan, berezia izango zan azken kontzertua, Arantzazukoa.

Artabe: Berez, atzenengo kontzertua Zeanurikoa izan behar zan. Eskean Kristoren lehenengo urtegurean, leku berean.

Eta zergaitik egin zenduen Arantzazukoa?

Arrese: Zeanuriko kontzertuan Igorrek oso txarto egin ebalako eta haserre joan zalako etxera. Apurte egin jakozan gitarea eta *amplia* be. Horregaitik sortu zan beste kontzertu bat egiteko idea, behar dan moduko agurra.

Ez zan erreza izan Arantzazuko kontzertua antolatzea. Zelan urten eban danak?

Artabe: Oztopoak oztopo, ederto urten eban. Eleizportaleko Gazte Asanbladak arazo asko euki ebazan, baina guk eta han egon ziran beste talde biak, lagundu egin geuntsen. Lagunak eta Arantzazuko herria oso ondo portau ziran.

Eta amaitzeko, abeslariarentzako itauna. Zelan bizi izan zenduan BEGITU 10 urte egitasmoaren esperientzia?

Artabe: Arratiako talde guztietako jentea juntau ginan kantea egiteko eta ezin neban imajinatu hain *rollo* ona egongo zanik! Oso ona, benetan be! Asko lagundu geuntsan alkarreri. Penarik handiena izan zan Kultur Etxean kantea aurkeztu behar genduzan mikrofonoak egon zan problemea... **Berritu be jo beharko dozue, ba!**



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxa. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
 • Garraio zerbitzua.